



GARAI BATEKO ERRENDERIKO LANTEGI EZAGUN BAT

BITTOR

Oraindik denbora asko ez dala, paper zar batzuk miatzen ari nitzala eskuratu zitzaidan emen azaltzen dan argazki au. Nere ustez 1914-15garren urte inguruan egiña izan bear du, gure erri onek sei bat milla bizi-lagun gutxi gora-bera zituanekoa, beraz, nere aurtzarokoa. «Retrato» ontan arkitzen diranen artean Errenderiar askoren gurasoak ikusten dira. Auen artean, oraindik bizirik irauten dutenak ba dirala eta aurtengo «Oarson» lantegi ontako eta lanetik kanpo, garai artako erriko giroa eta bizi-maña nolabaitere agertzen saiatu bear detala gogoratu zait.

Ontarako, bere larogeita iru urte bizkarrean eraman arren, beti gazte eta alai ta danok ain ezagun degun Joxe Argarate (Tabi) aiñakorik bai ote? Bera izan da ba, lendabizi inguratu geranean, argazkia ikusi eta

pixka bat arritu bada, ere gero lasaitu danean bere lankideen izen eta orduko beste pauso eta gora-berak emen jartzeko laguntza eman didana.

—Ara emen, Ploentino Loidi bere blusa aundiya-kin, beti orrela ibiltze uan lantokiyan, bere ondoan dagona Julio Gaztamintza (eskribientia). Gorago agertzen dan ori «Bonbin» etzekiat... beti «sonbreroakin» ibiltzen zalako edo... guk ala deitzen genioken beintzat, oso «artista» uan... Onen ondoan Agustín Uranga eta ni, bizirik ner ustez, gu biok eta Agirre bi anayak, Anjel (tallista, Zarautzen bizi dana) eta Bisente, bosgarrena berago eserita dagoen gazte ori, Gaston, orain Ernanin bizi dana. Gañontzekoak alde egintziteken emendik, zeak, esaten zuan bezela... «Eltziak Alanbratzea». Auen artean, nere ondoan beraxio Guillermo

Lizaso, bere ondoan Varela eta urrengoa Sisto Apellaniz (txaroladoria) berago Antonio Ugarte, Barrios (tapizerua) beste ori Rejino Amoriza izan bear dik, gero «Eula» baserriko mutua eta Roke Olaziregi, berago Migel Idiazabal, au izautuko dek noski, urrena Joxe Txapartegi (Potoko) eta Inasio Jimenez gero, len esandako Gaston, bestiekin ezin gogoratu nauk, baño emen agertzen ez diran geiago ere ba ituan urte inguru aietan gurekin aritzen ziranak: Elias eta Andres Etxeberria, Nikanor Albisu eta abar... baita Zumayako Julio Beobide gero «eskultore» famatua izango zana ere...

—Orduan emen egiten ziran mueble aiek, izan ere, etzuten nola naikoak izan bear, ezta?—Ez orixe... Udara-aldean Donostira etortzen ziran «Markes», «Konde» eta orrelako aundi-maundi jendea «kotxiakin» taller aurrera etorri eta or ibiltze ituan, eginda zeudenak ikusi eta lan berriak «enkargatzea».

—Ondo, Argarate... orain mueble eta lanak alde batera pixkabat utzita... Egia alda uda-berriko zenbait bazkal-ondotan tallerreko, oraindik ere or arkitzen diran eskallerak, ezin igorik gelditzen ziñatela?

—Bai, bai... ez dek gezurra, eta ez pentsa ankeko miñenbat gendualako zanik, bai zera... Garai artan ainbeste sagardotegi ziran aielako batean, dala Bordondo, Intziñarte, Añabitarte edo, sagardo onen bat asita zeola eta, laneko-bidean... «terrenua preparatzen» zirikatzalleak aste ituan, orduan ere, gaur ez ezik, ba ituan emen galantak eta: —Au dek egualdiya, Rejino...! —I, Potoko zerian... kupel berriya asi emenditek!... eta jakiña... eskalerakin, topo... bozak... bozak Tabi «kara y kreus» lanera edo sagardotegira... aidean txanpona bota eta lanera ateratzen bazan... «tranpa»... eta bota berriz, sagardotegia «tokatu» arte, eta... «media vuelta».

Gero, ez uste izan bakarrik izaten giñanik, beste pabrika eta tallerretako gure moduko «parrokiano» geigo ere juntatzen giñuan... Naiko sagardo eran, meriendatu eta bueltan «Salbadorrenian» edo «Txokon» kafia artu gabe ezin ba erretiratu... Gero izate ituan kontuak... batek «erriel bat»... bestiak, «zortzi sos»... urrengoak lau... Nik etzekiat nola arrayo moldatzen giñan, baño beti, gure ondoan olako «kapitalistak» alkartzen giñuan... Eskerrak «kreditu» desentia ba genuala.. «txekia firmatu» eta... larunbatian, kobratzian pagatu...

Bai, ederrak entzun bear izaten genizkian, baño... guri ajola gutxi... izan ere, gure moduko «tornillo» ondo estutu gabeko geiago billatzen genizkian orduan... eta gaur ere bai galanki... eta ori ez dek okerrena... Munduak, ordutik egin dituan aurrerapen eta «adelantuak» eta...tornillo «klase» ori lotuko duan «llave inglesik» ez duela iñork ere «inventatzen»... ja... ja... ja...

—Gure Tabi ren "almazenian" badago oraindik beste orri batzuek betetzeko aiña «jenero» baño geiegi luzatu gabe, azken tantua jarri egin bearko diogu. "Konpañi" ontatik jun ziranei, atsedean ta pake eta oraindik bizi zeratenoi urte askoko osasuna opa diezuegu biyotz-biyotzez.